

Kaixo, gure izenak Izaro Sanda, Habana Muñiz, Laida Sanda eta Izaro Carcedo dira, eta AURALIXX izeneko gure enpresa aurkeztera gatoz.

AURALIXX moda marka jasangarri bat da. Gure helburua da arroparen bigarren bizitza ematea, jada erabilitako edo baztertutako arropak berrerabiliz diseinu berriak eta originalak sortzeko. Horretarako, arropa birziklatua hartzen dugu eta sormenaren bidez pieza bakarrak sortzen ditugu, modernoak eta nortasun propioa dutenak.

Gure markak ingurumenarekiko errespetua, jasangarritasuna eta sormena ditu oinarri. Uste dugu modak ere arduratsua izan daitekeela, eta kontsumo arduratsuago baten alde egin nahi dugu, kalitatea eta estiloa galdu gabe.

Laburbilduz, AURALIXX ez da soilik arropa marka bat: aldaketa baten aldeko apustua da, modaren bidez mundu hobe eta jasangarriago bat eraikitzeko.